



Naturan Hezi III Topaketak

Eurpean hezi eta naturan hazi.



Eka. 27 - Eka. 28 2023

Kod. H05-23

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 27 - Eka. 28 2023

Kokalekua

Eureka! Zientzia Museoa, Paseo Mikeletegi 45, 20009 Donostia, Gipuzkoa

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Webgunea

<https://www.ekogunea.eus/eu/ekogunea/baso-eskola/10-73/>

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Naturan Hezi Eskola naturaguneetan hezten duen hezkuntza-komunitatearen topagunea da, non ikastaroak eta urteko Topaketak ospatzen ditugun. Topaketen helburua gai zehatz baten inguruan sakontzea da, hizlari adituei entzunez, esperientziak partekatuz, eta ikastetxeen artean elkarlanak eta sinergiak sortuz.

Lehen edizioan, naturan hezteak ikastetxean zekarren eraldaketa pedagogikoa izan genuen aztergai, eta zeharka baina nabarmen, irakasle eta ikasleen begirada aldatu behar zela ondorioztatu genuen. Bigarren edizioan, egungo gizarte eredu antropozentristatik ikuspegi ekozentrista batera salto egitearen garrantziaz jardun genuen, begirada aldatu eta naturarekin harremantzeko ditugun moduak aldatzearen aldeko jarrerak garatuz eta partekatuz. Honakoan, begirada goruntz zuzentzea egokituko zaigu, ideia eta ikuspegi berrien bila.

Badator naturara atera eta bertan jarduteko ordua eta badatoz egingo duen eguraldiaren inguruko hipotesi eta zalantzak. Osasungarria ote ikasleentzat horrela ateratzea? Zein neurri hartuko ditugu? Sarritan, aukerei bizkarra eman eta arriskuen zerrenda luzea goaz osatzen. Zein ekarpen pedagogiko leudeke halako egun batean? Bote lasterrean gutxi direla dirudi, ezta?

Topaketa hauetan, ustezko eguraldi desegokiaren aurrean ditugun hainbat ikuspegi deseraikitze gakoak aurkeztuko ditugu, aukera eta praktika egokiak badaudela ikusi eta ikasleekin batera ezagutza berriak eraikitzen hasteko. Hein batean, "ekaitzaren" erdian ere "barealdia" topatu dezakegula ikusiko dugu, sortzen zaizkigun beldur eta zalantzei aurre egiteko hainbat neurri ezagutu eta ikasleak "euritan dantzan" aritzeko baliabide pedagogiko eta aukera mordoa eskainiz; hortxe datza euripean hezi eta naturan haztearen indarrak.

Helburuak

Naturan hezten dutenen artean komunitatea sortu eta saretzea.

Ingurumenaren eta hezkuntzaren ardatzetik, naturan heztean eragiten diguten fenomeno meteorologikoak balioan jartzea.

Mota honetako egoerek eskaintzen dituzten aukera pedagogiko eta didaktikoak adibide eta esperientzia bidez arakatzea.

Ustezko eguraldi desegokiarekin ditugun jarrerak, harreman eta aurreiritzien inguruko hausnarketa bultzatzea.

Eskolek naturan hezteko ibilbidean egin dituzten proposamen eta esperientziak ezagutzea eta partekatzea.

Antolakuntza



Lankidetzak



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Programa

2023-06-27

08:30 - 09:00	“Erregistroa” Beatriz Larrañaga Ibeas
09:00 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Maialen Sistiaga Poveda Kutxa Ekogunea - Baso-eskola teknikaria
09:30 - 10:00	“El frio entra por los pies y otros mitos” Eduarne Ciriza Barea Osakidetza - Pediatra (Zoom bidez parte hartuko du)
10:00 - 10:15	“Alerta meteorologikoak basoan” Alerta motak, nola begiratu eta nola jokatu Arkaitz Orbegozo Larrion Gipuzkoako Foru Aldundia - Prebentzio, su itzalketa eta salbamendu zerbitzuko ofiziala
10:15 - 11:30	“Eguraldia kaxkarra denean, gure motxila prest!” Motxila prestatzeko saioa, elementu ezberdinak aurkeztuko dira Mikel Barcenilla Alvarez Ingurugela - Ingurumen hezkuntzako aholkularia eta mendiko kirol-teknikaria
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 12:20	“¡Ojú qué caló!” Sevillako Cuna eskolako esperientzia Sara Navarro Real Cuna eskola - Irakaslea
12:20 - 12:40	“Euriarekin ikasiz” Arizmendi Ikastolako esperientzia Maidier Herce Lezeta Arizmendi Ikastola (Arrasate) - Irakaslea Mireia Baz Arizmendi Ikastola (Arrasate) - Irakaslea
12:40 - 13:00	“Hotza eta euria, txikienekin ere” Mariaren Lagundia Ikastolako esperientzia Saioa Andueza Irazola Bergarako Mariaren Lagundia - Irakaslea Iosu Herran Ugarte Bergarako Mariaren Lagundia - Irakaslea Jone Agirrezabal Zubizarreta Bergarako Mariaren Lagundia - Irakaslea Mireia Iturrospe Guillen Bergarako Mariaren Lagundia - Irakaslea
13:00 - 13:20	“Basoa ospela denean” Txirrita eskolako esperientzia

13:20 - 14:00 "Laponiako txokoa"

Laponian hotzari aurre egiteko baliabideen inguruko solasaldi eta erakusketa

Karel Sterckx | Nøorderhuis - Natura gidaria

14:00 - 15:00 Bazkaria (matrikularen prezioaren barne)

15:00 - 16:50 "Euritan dantzan! "

Eguraldi "txarrak" eskaintzen dizkigun aukeren inguruko saioa

Irati Andoño Erdozain | Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria

Erkiz Miguez Montero | Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria

Jon Ander Galarraga Zubeldia | Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria

Maialen Sistiaga Poveda | Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria

16:50 - 17:00 Itxiera

Maialen Sistiaga Poveda | Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria

2023-06-28

09:00 - 14:00 "Bushcraft Saioa naturan"

Mikel Barcenilla Alvarez | Ingurugela - Ingurumen hezkuntzako aholkularia eta mendiko kirol-teknikaria

Andoni Gutiérrez Ibáñez | Feel the adventure enpresako zuzendaria - Euskal Mendizaleen Segurtasun Batzordea

Zuzendaritza



Maialen Sistiaga Poveda

Kutxa Ekogunea, Baso Eskola

Biologian doktorea da eta Euskal Herriko Unibertsitatean, British Columbiako Unibertsitatean (Kanada) eta Cagliariako Unibertsitatean (Italia) aritu izan da lanean ikertzaile eta irakasle gisa. Esperientzia zabala du aisialdi taldeen koordinazioan eta egun, Kutxa Ekoguneko Baso-eskola proiektuko teknikarietako bat da. Kutxa Ekogunean Ingurumen Hezkuntzako departamentuan ere egin izan du lan eta EuskalNatura (UEU Natur Zientziak) taldeko kidea da 2007 urtetik. Horrez gain, UEUko Online Irakaskuntza Masterreko irakaslea da.




Irati Andoño Erdozain

Kutxa Ekogunea

Kutxa Ekoguneko Baso-eskola teknikaria da. EHUKo Bilboko Irakasleen eskolan irakasle ikasketak burutu ditu, Haur Heziketan espezialitatea eta Bartzelonako Unibertsitatearen eskutik Ikaskuntza Espazioen Diseinua graduondoa burutu du. Esperientzia handia du haur eta gazteekin bai helduekin lanean, herrialde eta hezkuntza zein laguntza ezarpen ezberdinetan. Baso Eskola edo Forest Kindergarten proiektua lideratzen aritu da Eskozian urte luzez eta Bandera berdea (Eco Flag) lortzeko partaide aktiboa izan da.

Irakasleak



Jone Agirrezabal Zubizarreta

Arte ederretan eta Haur Hezkuntzan graduatua. Gaur egun, Mariaren Lagundia Ikastolako Haur Hezkuntzako irakaslea.



Saioa Andueza Irazola

Mariaren Lagundia Ikastola

Haur Hezkuntzan Diplomaturatua eta gaur egun Mariaren Lagundia Ikastolako Haur Hezkuntzako irakaslea



Mikel Barcenilla Alvarez

Ingurugela, Asesor

Bilboko Ingurugelako aholkularia, HH eta LHko irakaslea eta mendi-kirol teknikaria da. Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroko (orain UIHZ) eta aisialdiko ingurumen hezitzailea izan da. Bizkaiko Mendizale Federazioan, Bizkaiko Goi Mendi Eskolan eta Euskal Mendizale Federazioaren segurtasun batzordean, mendiko segurtasun arloan aritu da. Txikitan eskaut taldean sartu zenetik, harreman estua izan du natura eta mendiarekin. Natura ikasteko lekurik aproposena delakoan dago eta Eskolak Naturan! Ekimena martxan jarri zuen.



Mireia Baz

Haur Hezkuntzan diplomatua eta graduatua. Bere ibilbide profesionala Hezkuntza ez- formalean hasi zuen. Txatxilipurdi elkarteko Berramesten saileko arduraduna izan da, ondoren Arabako baso eskoletan lanean egon da eta azken urte hauetan, hezkuntza formalera salto egin du. Arizmendiko Haur Hezkuntzan bidelaguna izan da eta momentu honetan, Lehen Hezkuntzan dihardu.



Edurne Ciriza Barea

Osasunbidea

Medikuntzan lizentziatua, Pediatria kliniko eta Haur nutrizioan masterra egin zuen EHUn. 2014tik, pediatria modura egiten du lan Uharte, Cintruénigo eta Antsoaineko osasun zentroetan. Nafarroako Pediatria Elkarteko eta Espainiako Amagandiko Edoskitzeko Elkarteko batzordekidea da. Edoskitze naturaleko espezialista da eta Amagandiko Edoskitzaroko hezitzailea da iHAN (Humanización de la Asistencia al Nacimiento y la Lactancia) egitasmoaren baitan. Ingurumen Osasun Lidergotzako diploma du eta Espainiako Pediatria Elkarteko Ingumen Osasun batzordeko kidea da. Ikerketan ere badihardu, hiru ikerlerro nagusietan: Haur Elikadura, Amagandiko Edoskitzea eta Ingurumen Osasuna. Pediatria den aldetik, bere interes nagusia haurren osasuna hobetzea da. Bere ustez, haurtzaroa da prebentzio-ekintzen eragin handieneko unea: amagandiko edoskitzea, elikadura osasungarria eta iraunkorra, jarduera fisikoa eta naturarekiko kontaktua funtsezkoak dira bizi-ohitura osasungarriak hartzeko. Hainbat jarduera bultzatu eta ikusarazi behar ditugula sinisten du, hala nola eskola-bideak, eskola-ingurune berde eta seguruak, aire garbia, naturarekiko kontaktua, etab., joera hori iraultzeko, gure gizartea birnaturalizatzeko eta gure sustraiekin konektatzeko bidea delako



Jon Ander Galarraga Zubeldia

Donostiako Kutxa Ekoguneko hezkuntza teknikaria eta EAThink proiektuko eskola-tailerren hezitzaileen koordinatzailea da. Gaur egun, Kutxa Ekoguneko hezkuntza programaren diseinua, kudeketa eta ikastetxeekiko kontaktuaz arduratzen da. Bere arlo profesionalean dibulgazioan lan ugari egindakoa da, bai prentsa idatzian zein ikusentzunezko medioetan, batez ere, fauna eta floraren artikuluak idatziz eta irrati saioak egiten. Hondakin organikoen kudeaketan aditua da, konpostaje teknikari bezala 6 urtez lan

egin du, bai Gipuzkoa zein estatu mailan. Etxeko konpostaje kanpainak, zein auzokonposta kanpainak diseinatu eta bideratu ditu, bai eta ere industria mailako bilketa sistemen optimizazioan.



Andoni Gutiérrez Ibáñez


Feel the adventure

Bizkaiko Goi Mendi Eskolako teknikaria, BMF-FVMn sartzeko 2016ko maiatzaren 3ko deialdiaren arabera. Sakanetako eta Mendi Ertaineko Kirol Teknikaria da, baina bere jarduera pertsonalak ezagutzen diren mendigune guztietako mendirik altuenak hartzen ditu. Abentura anitzeko enpresekin lan egin du, eta esperientzia egiaztatua du era guztietako mendi-jarduerak kudeatzen: orientazio-ikastaroak, haitz-eskalada, vivac-teknikak eta ikasleekin mendiko hainbat jardueratan egindako lanak. Kantauriko mendiak eta Pirinioak ezagutzen dituen aditua da, baina orain Feel the adventure enpresarekin Euskal Herri osoan zehar gidatzeko eta trebatzeko proiektu berria du ardatz.



Maider Herce Lezeta

Arizmendi ikastolako GURA egitasmoko arduradun pedagogikoa da. Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Berezian diplomatua, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan ibili izan da eta orain Lehen Hezkuntzako irakaslea da. Maila guztietan ibili da tutore lanetan eta laguntza gelako irakasle bezala ere.



Iosu Herran Ugarte

Lehen hezkuntzan diplomatua eta graduatua. Honez gain, Kirol arloan espezializatua eta goi mailako zikloa aterata. Gorputz hezkuntzako espezialitatea izan arren, gaur egun Lehen Hezkuntzako tutore da Mariaren Lagundia ikastolan. Baso eskolan esperientzia, Lehen Hezkuntzan hain zuzen ere.



Goretti Igoa



Mireia Iturrospe Guillen


Mariaren Lagundia Ikastola

Haur Hezkuntza musikala eta Lehen Hezkuntza Hezkuntza Berezia espezializatua. Gaur egun, Mariaren Lagundia Ikastolako Haur Hezkuntzako tutorea da baina Lehen Hezkuntzan ere tutore izan da.



Beatriz Larrañaga Ibeas

Artista, aktorea eta klowna. 1999an arte eszenikoetako ikasketak hasi zituen, antzerkian, ahotsean eta gorputz-adierazpenean prestakuntza bizia emanez. 2006an clown munduarekiko maitasuna ezagutu zuen. Hortik aurrera, Clown arteari ekiten dio. Prestakuntza trinkoa eta etengabea eginez hainbat clown-eko irakasleekin. Komedia fisikoaren teknikan ere trebatzen da. 2006an, Intujai Teatro Konpainia sortu zuen May Gorostiagarekin batera, eta bertan Antzerki Jaialdiak (Antzeztun, Amarotzeko Antzerki Astea) eta Ahozko Narrazioa (AHOZ-AHO Nazioarteko Jaialdia) antolatzen dituzte. 2011n hainbat ikuskizunetan parte hartu zuen aktore gisa: Murro en punta de faca (Zuzendaritza: May Gorostiaga), De las amigas y sus melodías (Zuzendaritza: Migel Galindo). 2015ean, pertsona bakarreko ikuskizunak izan zituen ardatz, umoreari eta clown hizkuntzari buruzkoak: 2017an estreinatzen, A TOMAR VIENTO FRESCO-AIRE HEMENDIK, 2021ean, SOY LA BOMBA - BONBA BAT NAIZ estreinatu zuen eta 2022an, berak zuzendutako eta ekoiztutako THE SWOW MUST GO ON ikuskizuna.



Lehen Hezkuntzan graduatua da Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Donostian. Urte asko eman ditu hurrekin esparru ezberdinetan lanean. Azken urtean burututako Gradu Amaierako Lana ikasgelaz kanpoko ikaskuntza ikertzerantz bideratu zuen, eskola inguruneak baliabide didaktiko gisa eskaintzen zituen aukerak arakatuz. Egun, Kutxa Ekogunean Baso - Eskolako teknikari gisa jarduten du, eskolei naturan hezteko aholkularitza pedagogiko eta didaktikoa eskainiz besteak beste.



Sara Navarro Real

Enpresa administrazioan ikasketak egin bazituen ere, munduan zehar buelta asko eman zituen. Ama izan eta lan egiten zuen enpresak itxi ondoren, hezkuntza proiektu propioa sortzea erabaki zuen. Hala sortu zen Cuna baserri-eskola, benetan lanbide horrek zoriontsu egiten zuela ikusi zuen Sarak. Ordutik geroztik, naturan heztearen eta ingurumen hezkuntzaren inguruan formatzen segitu du eta egun, Cuna eskolako koordinatzaile eta arduradunetako bat da.



Arkaitz Orbegoitzo Larrion

Donostiko Goi Mailako Arkitekturako Eskolan egin zituen ikasketak eta Lan-Arriskuen Prebentziorako Goi Mailako Teknikaria izateko masterra burutu zuen. Bere ibilbide profesionala eraikin eta ondarearen birgaitze eta zaharberritze arloan hasi zuen eta arlo horretan enpresa pribatuko hainbat postu izan ditu (hasieran obra arduradun bezala hasi eta zuzendari tekniko eta produkziokoa izatera iritsi arte). Baina 2015ean Suhiltzaile Ofizial postua lortu zuen eta Gipuzkoako Foru Aldundian lanean hasi zen. 2016tik 2019ra Suhiltzaile Zerbitzuko Buruzagitzaren ardura hartu zuen. 2020tik berriro ofizial postura itzulita Operazio eta Formakuntza arloko plangintza eta kudeaketa ardurak jorratu ditu gaur egun arte. Arlo pribatu eta publikoan garapen eta ikerketa proiektuetan parte hartu izan du. Horrela Europar Batasuneko funtsak hornitutako hainbat nazioarteko proiektuetan parte hartu izan du arlo pribatuan. Orain arlo publikoan FEDER funtsekin hornitutako POCTEFA programan ALERT proiektuaren bazkidetzan GFA-aren aldetik proiektu arduraduna izan da larrialdietan mugazgaindiko elkarlan eta koordinazioa sustatzea helburu dituen proiektu batean.



Karel Sterckx

Karel Sterckx - International Wilderness Guide

Flandrian jaioa, soziologoa da eta egun, natura gida modura egiten du lan Laponian, Inari Lakuaren inguruan safariak antolatuz, Sami herriarekin elkarlanean. Txikitatik izan du naturarekiko lotura estua eta 16 urterekin hasi zen boluntario gisa Suitzako Alpeetako mendi udalekuetan. Unibertsitateko ikasketak amaituta, Euskal Herrira mugitzea erabaki zuen eta ia 10 urtez bizi izan zen hemen, euskara ere ikasiz. 2010ean, Euskal Herritik unibertsitatera bueltatu zen eta hainbat gaien inguruan sakondu nahi izan zuen: neurobiologia, gizartegintza herri indigenoetan, naturarekiko konexioa,... Horrela, "Naturan oinarritutako garapen pertsonaleko" coach-a bihurtu zen, batik bat 18-25 urteko gaztetxoekin eta boluntario bezala, gazte zentroetako nerabekin, adingabeko errefuxiatuekin, eskolatik kaleratutako gaztekin... 2020an, pandemia betean, Finlandian eskaintzen den "International Wilderness Guide" ikastaroa egin zuen eta ondoren, "Adventure Education" instruktorea egin zen. Une honetan, ikastetxeek naturan irakasteko metodo bat garatzen ari da.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-05-31 ARTE	2023-06-27 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	-
Orokorra	-	55,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jauriaritza	-	55,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernu	-	55,00 EUR
Elkar	-	55,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide	-	55,00 EUR

Kokalekua

Eureka! Zientzia Museoa, Paseo Mikeletegi 45, 20009 Donostia, Gipuzkoa

Gipuzkoa